



UTOPIA BIDEO ETA ARGAZKI LEHIAKETA

14 urtetik 25era bitarteko gazteentzat

2021

GAIA

UTOPIA

Hirian, ekologian, giza harremanetan, teknologian...

Deialdi berri honetan, gazteek, argazkigintzaren eta ikus-entzunezkoen bidez, beren ingurune hurbilean utopiari buruz duten ikuspegiak ikustaraztea nahi dugu.

Utopia gobernu sistema ideal bat da, non gizarte perfektu eta justu bat sortzen den, non dena gatazkarik gabe eta harmonian gertatzen den. Oro har, komunitatearentzako plan ideal, erakargarri, onuragarri hori, zaila da betetzen edo formulatzeko unean ezin da gauzatu.

Lehiaketa honen bidez, irudimenezko pasabideak eta lotura ausartak ezarri nahi dira historiak ematen dizkigun fikzioen eta etorkizunak dakarzkigun ziurgabetasunen artean.

PARTE HARTZAILEAK

· Gasteizen bizi diren edo ikasten duten **14 urtetik 25era bitarteko gazteak.**

Aukeratutako eta saritutako parte-hartzaileei Gasteizen daudela egiaztatzeko agiriak eskatu ahalko zaizkie.

· **Gehienez ere 3 pertsonako talde-lanak** aurkeztu ahal izango dira, eta, edonola ere, aurreko paragrafoen aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

Parte hartzaileek ezin dute saria jaso bi urtez jarraian; hala ere, bere lanak hautatu ahal izango dira lehiaketa honen hainbat erakusketatarako.

LANEN KOPURUA ETA KALITATEA

Parte hartzaile **bakoitzak lan bi** besterik ezin du aurkeztu lehiaketara.

· **Argazki lanak** sortatan aurkeztuko dira. Sortek 3 argazki izango dituzte gutxienez; eta 5, gehienez. Argazkiek JPG formatua izan behar dute, eta gutxienez 20 x 30 cm-ko irteera tamaina eta 300 pixel hazbeteko bereizmena.

· **Proposamen bideografikoak** bideoz edo gif bidez egindako lan edo zirriborro audiobisualak izan behar dira, eta gehienez 5 minutu iraungo dute. Mp4 formatuan aurkeztu behar dira.

LANAK BIDALTZEA

· **Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan (GAUB).** Plaza Berria, 01001 – Vitoria-Gasteiz. Ordutegia (astelehenetik ostiralera): 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00 (arratsaldez astearte eta ostegunetan soilik)

Lanak **CD edo DVD batean** aurkeztu behar dira, **sinatu gabeko gutun-azal batean** sartuta. Gu-

tun-azalean lanaren izena eta "Gazte Klik-klak 2021" erreferentzia jarri behar dira. Barruan beste gutun-azal bat sartu behar da, datu eta dokumentu hauek dituen: egilearen izen-abizenak, adina, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa eta NANaren fotokopia. Gutun-azal horren kanpoaldean lanaren izena eta "Gazte Klik-klak 2021" erreferentzia jarri behar dira.

Posta elektronikoz gazteklikklak@gmail.com, helbidera bidaliz gero, "Gaiari" Gazte Klik-klak 2021 jarriko da. Mezuan edo itsatsitako artxiboan, lehiaketara proposatuko lanaz gain, honako datu hauek adierazi beharko dira: **izen-deiturak, adina, harremanetarako telefonoa eta NAN zenbakia.** Jasoko ditugun lan guztiak konfirmazioa izango dute posta elektronikoz.

Lan bakoitzak izenburua izan behar du. Izenbururik gabekoak ez dira lehiaketan sartuko.

JASOTZEKO EPEA

2021eko urriaren 22tik azaroaren 21era bitartean, biak barne.

ERAKUSKETA

Aurkezten diren argazkien sortekin erakusketa egingo da 2021eko abendutik aurrera. Beharrezkoa bada, epaimahaia aurkeztutako lanen artean kalitatetik onenekoak aukeratu ditu eta kontuan hartuko da erakusketarako zenbat leku dagoen.

Aldi berean, Vitoria – Gasteizko Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) erakusketa birtual bat egingo da aurkeztutako lanekin. Beharrezkoa bada, epaimahaia aurkeztutako lanen artean kalitatetik onenekoak aukeratu ditu eta kontuan hartuko da erakusketarako zenbat leku dagoen.

SARIAK

Lau sari emango dira. Sariak ezin izango dira metatu, eta, hortaz, ez zaizkio egile berari emango.

Sari bakoitzak honako sari hornidura izango du:

- **300 euroko bono** trukagarri bat, argazki, bideo edo kultura materiala erosteko.
- **Lau sarituek parte hartuko dute taldeko erakusketa batean** gure hiriko argazkilaritzan eta artean adituak diren hainbat artistaren tutoritzapean. Erakusketa 2022ko bigarren lauhilekoan izango da. Katalogo bat argitaratuko da, parte-hartzaileen lana eta ibilbidea jasoko dituen.

EPAIMAHIA

Vitoria-Gasteizko Udalaren Alkatzetza eta Erakunde Harremanen Sailaren Gazteria Zerbitzuak izendatuko du epaimahaia. Epaimahaia lanen originaltasunaz gain, bai eta gaiarekiko lotura, bai kalitate artistikoa eta teknikoa balioztatuko du.

EPAIA

Abenduko lehengo hamabostaldian zehar argitaratuko da epaia, Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) nahiz Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan.

OHARRAK

Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue gaiari **Gazte Klik-klak 2021** adieraziz: gazteklikklak@gmail.com

Argazkiek argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan behar dute.

Aurkeztutako argazkiak Gazteria Zerbitzuaren esku geratuko dira, eta argazki horiek erabili nahiz kopiatzeko eskubidea beretzat gordetzen du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.

Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute, eta argazkiren batek baldintza teknikoak betetzen ez baditu edo beste arrazoi batengatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izpirituarekin bat ez datorrela uste badute, ez argitaratzea erabaki ahalgo dute.

Ez da onartuko edozein marka edo produkturen publizitatea egiterik. Hori arrazoa izan daiteke antolatzaileek aurkeztu den lana baztertzeko.

Parte hartzaile bakoitzak baimena behar du bereak ez diren soinu banda, musika edo irudia erabiltzeko, baita ondo aipatu ere erabili duen lizentzia, Creative Commons artxiboak edo parekoak erabiliz gero.

Webgunean argitaratzeko, gomendatu den tamainaz gorako neurri egokiak emango zaizkie argazkiei.

Parte hartzeak oinarri hauek guztiak, bai eta epaimahaiaren erabakiak ere, onartzea dakar berekin.

Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri haue-tan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

LAGUNTZAILEAK:



ZASESPAZIOA